



Eguzkitsua bezain alaia izan da Koadrilen Eguna

VILLABONA ▶ Gazte nahiz heldu, jendetza bildu zen atzo Etxeondon; giro aparta izan zen nagusi bertan

GAUR ▶ lazko arrakastaren ostean, bigarren urtez, Euskal Jaia izango da, Santio jaien baitan ▶ 3



Herritar ugari bildu ziren atzokoan Etxeondon. Bertan jai giroa izan zen nagusi, eta paella dastatzeko aukera izan zuten. NEREA URBIZU

B. MUÑAGORRI ▶ ELDDUAINGO ALKATEA FUNTZIOETAN



A. IMAZ

«Gestora bat onartzea espero dut»

Egoera normala gabe ez uztea udaletxea da duten helburua ▶ 6

A. BARANDIARAN ▶ EAE-KO KIDEA



A. IMAZ

«Esperantza oso txikia daukagu»

«Alderdien Legeari probetxua atzeratzen diote», dio ▶ 6

TOLOSA ▶

Juan Mari Jauregi omenduko dute bihar

Duela zazpi urte erail zuen ETA ▶ 2



garces altzariak
1.930ean sortua

- Dekorazioa
- Barne apaindura
- Proiektuak
- Gremioen koordinazioa

Larrea auzoa,
Villabona
Tel.: 943 692 965

www.muebles-basoko.com

Breso eta iheslarien aldeko juntokia Villabonan jaietan

Berdura plazan

Uztailaren 24tik 31ra
20:00etatik 24:00etara

POLITIKA ▶

ETAk Jauregi erail zuela zazpi urte beteko dira bihar

Tolosako PSE-EE alderdiko zinegotzi izan zenaren oroimenez hainbat ekitaldi egingo dituzte goizean zehar



Omenaldiko ekitaldi nagusia Tolosako Fronton kafetegiko lorategian izango da, urtero bezala. I. GARCIA

ESTI EZEIZA

Bihar zazpi urte betetzen dira, ETAk Tolosako Fronton kafetegian barrualdean, Juan Mari Jauregi, PSEE-ko gobernadore zibila erail zutenetik. Urtero ezala honetan egiten den bezala, hainbat ekitaldi gauzatuko dituzte bihar, bere omenez. Bertan izango dira, Maixabel Lasa, Jauregiren alarguna eta alderdikide izan ziren politikari batzuk. Horien artean, Terrorismoaren Biktimen Atentziorako zuzendari nagusi den Jose Manuel Rodriguez Uribes eta Oscar Hugo Renedo, Tolosako PSEE-ko zerrendaburua.

Omenaldia 10:30ean hasiko da, lehendabizi, Burnikurutzetara joango dira. Harri honek, Albiztur, Legorreta, Beizama eta Bidegoian herriak mugatzen ditu. Hemendik, Tolosako PSE-EEko zinegotzi izan zena-

ren oroimenez egindako monolitora bideratuko dira, handik, Legorretara jaitsiz.

Ekitaldi nagusia 13:00ean hasiko da, hau, Tolosako Fronton kafetegiko lorategian izango da. Hemen, Jauregiren alargunak, Rodriguez Uribesek eta Renerek hitz egingo dute.

Bizitza politikoa

Juan Mari Jauregi Legorretan jaio zen 1951n. Soziologia ikasketak egin zituen eta ondoren, Tolosako PSE-EEko zinegotzi izan zen. Kargu honetan aritu zen lanean 1994ra arte, Gipuzkoako Ministroen Kontseiluko Gobernadore izendatu zuten arte, hain zuzen ere. Bi urte beranduako Alderdi Popularreko Juan Alberto Belloch-ek jarri zen bere lekuan, eta Jauregi Jose Maria Gurrutxagarenean,

hau da, Gobernadore Zibil bezala.

1.996an Euskal Herria utzi eta Chilera joan zen bizitzera. Urte horretan PSOEK hauteskunde orokorrak galdu zituen. Garai horretan, Jauregik, Barne Ministroa zen Jaime Mayor Orejari Euskal Herritik kanpo egiteko bat aurkitzeko eskatu zion. Arrazoi honengatik, Aldeasan lan egiten hasi zen. Hasiera batean Canariar irletara joan zen, baina karguz igo zutenean, Chilera joan zen bizitzera. Han Hego Ameriketako Aldeasako buru izendatu zuten. Baina, Euskal Herrira eta zehazki Tolosara egindako bidaiaren batean, Fronton kafetegian zegoenean, bi gizonek tirokatu zuten, eta erietxera eraman bezain pronto hil zen. Hala, legorretarra 2000. urteko uztailearen 29an hil zuen ETAko Buruntza komandoak.

GIZARTEA ▶

Trena apeaderoan ere geratzeko eskatu dute

EB-Aralarrek zuzeneko trena Tolosako bi geltokietan gelditzeko eskatu du

ERREDAKZIOA

Zumarragatik Irunera doan trena Tolosako bi geltokietan gerra dadila eskatu dute EB-Aralarrekoek.

Rebeka Ubera Aranzetak, Aralar alderdiko batzarkideak, eta Mikel Izagirrek, Ezker Batua-Berdeakeko batzarkideak, Zumarraga eta Irun arteko tren zuzeneko Tolosako geltoki bietan geldialdia egiteko eskatu dute Batzar Nagusietan.

Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako batzordeari egin zituen eskaria herenegun goizean. EB eta Aralarren Tolosako kideek horrela eskatuta egin zuten eskaria batzarkideek. Baina neguko ordutegi berria ezartzean

hainbat tren zuzen Tolosa herriko (apeaderoan) geltokian geratzeari utzi zioten. Egoera horren aurrean hainbat tolosar elkartzen hasi ziren egoerarekin ados ez zudelako, eta geltokia tolosar askorentzat urruti geratzen dela uste dutelako egin zuten eskaria.

Sinadurak biltzen aritu zen taldeak 900 bildu zituen, ondoren udaletxera aurkezteko. Hemen, hainbat jira eta bira egin ondoren, hiru alderen arteko bilerak egin ziren RENFE, Aldundia eta herritarren artean. Azkenik, udako zerbitzuak apeaderoan ere geratzea lortu zelarik. Orain eskatzen dutena da, neguko ordutegia abian jartzten denean, orduan ere, tren zuzenak Tolosako geltoki bietan geratzeko.

TXIRRINDULARITZA ▶



Aitor Ocampos Espainiako Txapelketan lehiatuko da

Erredakzioa ▶ Aitor Ocampos, Belca-Oriako taldeko txirrindularia, joan den igandean Euskadiko Txapela irabazi eta gero, Euskadiko selekzioak aukeratu du asteburu honetan jokatu den Espainiako txapelketan parte hartu dezan. Lasterketa larunbatean izango da, Inda herrian (Castellon), eta errepideko modalitatean lehiatuko da. HITZA

berria bekak
2007

Norentzat:

- Unibertsitate titulua duten gazte esperientzia gabeentzat
- Prestakuntza teoriko-praktikoa jaso eta karrera profesionala bideratu nahi dutentzat

Kazetaritza arloa: **8 beka**, horietako bat bideo informatiboak lantzeko

Zuzenketa-itzulpengintza arloa: **beka bat**

Ezaguariak:

- 9 hilabeteko iraupena, urritik ekainera
- Astean lau eguneko jarduna
- 6.000 euroko diru laguntza
- BERRIAK Andoainean duen egoitza nagusian edo ordezkarietazan

Ezaguariak:

- 12 hilabeteko iraupena, urritik irailera
- Astean lau eguneko jarduna
- 8.000 euroko diru laguntza
- BERRIAK Andoainean duen egoitza nagusian

Eskaezak aurkezteko epea: 2007-09-07
Eskara egiteko orria eta beka deialdia www.berria.info helbidean dago eskuragarri

AUKERA EZAZU, BIZI EUSKARAZ **berria**

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

Jogurta

Mahala baserria - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633

ARAMBURU

Salgai (Tolosa). Pisu Bizkaia kalean, guztiz eraberritua (Sputnik dorrean). 44.500.000.
Salgai (Tolosa). Pisu "La Estrella" eraikinean.
Salgai (Tolosa). Pisu Araba etorbidean.
Salgai.
Garajeak, Euskal Herria kalean, irekiak Ibarren.
Salgai (Tolosa). Garajeak Leidor azpian.
Salgai (Ibarra). Lokala Euskal Herria kalean.
Alokatzeko (Salou).
Apartamentua. 2 logela, 7 ohe, aire egokitu eta pisuzina. Hondartzaren ondoan.
Alokatzeko (Tolosa).
Pisu San Franzisko kalean.
Alokatzeko (Tolosa).
Garajeak. Araba etorbidean irekia eta lurren eta San Franziskon itxia.
Alokatzeko.
Pabiloi industriala, Leaburuko bidean.
943 65 17 13 / 677 46 09 16

VILLABONA ▶ SANTIOAK

Koadrilak protagonista

Etxeondon janaria eta edaria izan ziren nagusi, herritarrek jarritako giroarekin batera eta txarangaren laguntzaz

NEREA URBIZU

Ziurrenik billabonatar asko atzoko bazkariaren esperoan zeuden, janarengatik beragatik, eta baita giroarengatik ere. Adin guztietako jendea ikusi zen Etxeondon. Koadrilen Egunean. Txaranga bertan izan zen, goiz osoan zehar hauen musika entzuteko erraza izan zelarik.

Jolasak dauden lekuetan beti haurrak daude, eta hori ikusi zen atzo Arroan: haurrak eta jolas mordoa Kulkiren eskutik. Jolasen ondoren, gurasoekin batera Etxeondora joan ziren bazkaltzera. Itzalpea izan zuenak zorrea izan zuen. Eguzkitan izan zenak, berriz, beroa jasateko indarra, eta azkarrenek estalpeak eraman zituzten.

Bakoitzak berea eramanda koadriletan bildu ziren beste behin eta bertan bapo gelditu ziren jandakoarekin eta edatekoarekin. Nekaezinak txaranga ere animatu egin ziren eta goizeko erronda egin ondoren Etxeondon bazkaldu zuten, arratsaldean berriz ere jotzen hasteko.

Ia-ia leku faltan

Aurten ere jende asko bildu da Etxeondon. Ez zen jende guztia bertan sartzen, eta errekez bestalde jarri ziren koadrila

batzuk: beste batzuk, berriz, etxebizitzan ondoan, parketik kanpo, hain zuzen ere.

Ez zen, baina eguna horrela bukatu, musika gehiago ere izan baitzen Kupela taldearen eskutik. Bertan erre zituzten bazkarian hartutakoak eta bestelakoak. Hala ere, han ez zen edaria faltatu, beroari aurre egiteko beharrezkoa baitzen.

Arroan dantzariak izan ziren gero, eta Kupelak itxi zuen atzoko egitaraua.



Haurrek gurasoen ohiturak jasotzen dituzte, baita festetan ere. N. U.



Txaranga bertan gelditu zen bazkaltzen. Askok babesleak erabili zituzten eguzkiaz babesteko. N. U.



ANOETA ▶

'Pasalo' saiora joateko autobusa antolatu dute

ETB-2ko *Pasalo* saiora ikusle bezala joateko, abuztuaren 30erako, Anoetatik autobusa bat antolatu dute 14:00etan. Izena emateko 18:00etatik aurrera deitu behar da 943 65 16 18 edo 943 65 27 03 telefono zenbakira. Joaten den guztiari 6 euro eta kafe edo freskagarri bana emango zaio.

ERREMONTEA ▶

Kursaal txapelketaren aurkezpena

Datorren ostegunean Casino Kursaal erremonte txapelketa aurkeztuko dute. Bertan eskualdeko hainbatek hartuko dute parte, baina oraindik ez dute ezagutzera eman. Birtarte, gaur, bihar eta etzi ohiko partidak jokatu dituzte: gaur, 16:00etatik aurrera, bigarren partidaren Altuna II.a ariko da Bitoriarekin Galarretan. Aurkariak Ezkurra-Etxeberria III.a izango dituzte kasu honetan. Bihar ordu berean Altuna I.a-Agirrezabala ariko dira. Etzi, 17:00etan Azpeitian Altuna II.a Iriarterekin ariko da Zeberio II.a-Agirrezabalaren aurka.

ALTZO ▶

Presoen aldeko elkarretaratzea etzi egingo dute

Altzoko Batzarremuño plataformak deituta, etzirako, hilaren 30erako, alegia, presoen aldeko elkarretaratzea egingo dute. Horretarako herriko pilotalekuaren aurrean 20:00etan elkartuko dira. As-teleheneko deialdia irekia da.

VILLABONA ▶

Ekain Yarza, Santiagoraino traineraz

Gaur goizean Orioko arraunlari talde bat Santiago aldera (Galiza) aterako da. Bertan, Ekain Yarza billabonatarak hartuko du parte. 13 etapa ezberdinetan egiteko asmoa dute eta gaur Plentziaraino iritsi nahi dute. Horretarako, 78 kilometro inguru egin beharko dituzte gaur.

EGITARAUA ▶

VILLABONA

GAUR (EUSKAL JAIA)

09:00. Sokamuturra Larrean.
10:00. Xakea Txistulari Plazan.
10:30. Erraldoi eta buruhandien irteera plazatik.
11:00. Pala Txapelketaren herriko finalak Amasan (binaka).
12:00. Pilota: eskuz binakako afizionatuen finalak Amasako frontoian (federatuak).
11:30. Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoan *Zorionak* emanaldia plazan.
18:00. Sagardo eta pintxo dastaketa, Laja, Eguren eta Ziolar trikitilariak alaiturik.
19:30. Bertsolariak: Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso.
20:00. Erromeria: Laja, Eguren eta Ziolar trikitilariak.
21:00. Zikiro jatea izango da plazan.

00:00. Erromeria Patxi eta Konpainiarekin.

BIHAR

Haurren eta gazteen eguna
09:00. Plater tiraketa Onddon.
10:30. Herri Krosa.
11:00. Haurrentzako sokamuturra Larrean.
12:00. Gazte jokuak plazan.
12:00-14:00 eta 17:30-20:00. Haur jolas parkea Txistulari Plazan.
14:00. Bazkaria plazan.
16:30. Pote Punk herrian.
19:30-21:00. Abiba Disko Festa plazan.
21:15. Kontzertua plazan izango da.
22:30. Eresargi abesbatza eta Zornotzako abesbatzaren saioa.
23:30-03:30. Abiba Disko Festa plazan.

ALTZOKO JAIAK

GAUR

11:00. Jaien hasiera, buruhandi, txistulari eta Iraunkorrek txaranga alaiturik. Ondoren: Altzoko Artea eta Ibarro Alurr dantza taldeko gazteboen emanaldia.
12:00. Txakoli probaketa. Jarraian Toka Txapelketa.
15:30. Mus txapelketa azkarra herritarrentzat (izena emateko epea 14:00etan itxiko da).
15:30. Plater hausketa herrikoia (antolatzaileak ez dira ezbeharren arduradun egingo).
18:30. Frontoi zaharreko. Pilota Txapelketako finalak.
22:30. Bertso jaialdia: Amaia Agirre, Amets Arzallus, Sustrai Colina, Jexux Mari Irazu, Aitor Mendiluze eta Angel Mari Peñagarikano.
Ondoren. J&K berbena taldea.

IBARRA (SAN INAZIO AUZOA)

GAUR

10:00. San Inazio auzoaren jaien hasiera, ohiko txupinazoarekin. Ondoren: kadeteen futbol partidak ikusgai. Bihar, berriz, finala jokatu dute.
10:30. Haur jaialdia; globo gerrarako bainujantzi eta txankletekin joateko komeni da. Toka ere izango da.
11:30. Tortilla lehiaketa eta pinxo dastaketa.
17:30. Die Boss e Izegem belgikar taldearekin dantzak izango dira.
18:30. Sokatira Ibarroko eta Izaskungo taldeen artean. Bien arteko dema.
19:30. Txokolatada hurbiltzen direnrentzat.
23:00. Berbena izango da DJ Gabirekin.

GIZARTEA

EGITARAUAK

ORENDAIN
ABUZTUAK 12, IGANDEA (UMEEN EGUNA)
16:00. Suziriak. Umeen jolasak herriko plazan: Alboraren bila.
Ondoren, Buruhandi kalejira.
18:30. Merienda, indarrak berriek.
20:00. Sardina erreak eta bistorra gerturatuaren diren guzientzat herriko plazan.
ABUZTUAK 14, ASTEARTEA (AMA BIRJIN BEZPERA)
21:00. Buelta kanpaiak eta suziarik.
21:15. Beldio ohiturari jarraituz, kostilla jatea herriko plazan.
23:30. Trikierto saioa: Iñaki Larranaga eta Garlitz Lizarraga Irribarriekin eta Iker Zubeldia eta Iban Urdangarin bertolariekin.
ABUZTUAK 15, ASTEAZKENA (ANDRE MARI EGUNA)
10:00. Suziriak eta buelta kanpaiak.
11:15. Meza Nagusia San Sebastian ermitan.
12:00. Txakolin dastaketa Umeentzako Urtzuetan diren guzientzat.
12:30. Zaldi lasterketa.
17:30. Orendaingo IV. Trikieta txapelketa Urtzuetan.
18:00. Orendaingo Partaideak Eneritz Bengoetxea eta Edume Errandoren, Mirari Aizkue eta Zuloa Zenarnuzabeite, Lierni Aranburu eta Goizane Iraola, Leire Zumeta eta Amaia Arza.
20:00. Prego eta thesarien aldeko herri kiroi saioa, ekitaldia eta ondoren afaria.
23:00. Nania taldearekin erroberia gaitzakidea arte.

ABUZTUAK 16, OSTEGUNA (AMABIRJIN BIGARRENA)
10:00. Suziria eta buelta kanpaiak.
11:00. Meza Nagusia herriko hildakoen alde San Sebastian ermitan.
12:00. Txirrimuldar lasterketak Herriko zirkuituan.
13:30. Txirrimuldar-lasterketan parte hartutako guztiei sari-banaketak.
14:00. Herri badakia Eltozak Elkartean.
16:00. Umeentzako gaztelu puzgarriak, eta aurrer festak.
18:00. Herrikoentzako IV. Toka Txapelketa. Ondoren sari-banaketak.
20:30. Orendaingo palata tortilla labeldunaren lehiaketa. Irabazleak zargari eder bat eta 30 euro jasoko ditu.
Ondoren, Herri-afaria.
23:00. Hainzama taldearekin dantzialda gozaldiera arte.



Iturrakko danborrada. »ira

12:00. Txakolin dastaketa.
13:00. Toka Txapelketa.
17:30. Alur Dantza Taldea.
Ondoren, Herri kiroiak.
19:30. Herri kiroi jaialdia.
Arratsaldean, Trikieta (Agurtzane eta Jon Elusondo) arratsaldian zehar.

ABUZTUAK 22, ASTEAZKENA (GAZTE EGUNA)
12:00. Trikiptorea.
14:00. Bazkaria goiko frontoan.
16:00. Jokupotea (taberna bakoitzean joku desberdinak burutuko dituzte).
18:30. VII. Pilota Txapelketa final nagusia (gazteak eta helduek).
21:00. Zahagi sargardoa. (ogia eta sargardoa antolatzaileek jarriko dute).
23:00. Kontzertuak: Strombers, Galazka eta Skamaboin.
ABUZTUAK 23, OSTEGUNA
18:00. Buruhandi eta kostuarien kalejira.
20:30. Etsien jaietara.

ABUZTUAK 26, IGANDEA
09:00. Txistulariak. Egun osoan baranga biliko da herriko kaleak alaituz.
12:00. Tortilla Patata Lehiaketa. Epaleak herriko sukaldariak (baratzeak ogia eta edaria jarriko du).
17:00. Dantza emanaldia.
Ondoren, Aste karrera.
Jarrailan, Manita Euskal presak Euskal Herria irribarriekin.
20:30. Sagarro afaria.
23:00. Tormelada taldea.
24:00. Etsien entzerria.
IBARRA
ABUZTUAK 21, ASTEARTEA
21:00. Afaria: Euskal presak Euskal Herria, San Bartolome plazan.
ABUZTUAK 22, ASTEAZKENA
11:30. Iturrakko Merkatarien Elkarteko eskaintako hamaitakoa, San Bartolome plazan.
11:45. Haurren eta gazteoen koadriak plazan elkarfuto dira.
12:00. Jaien hasiera: Biz-Nahi erretaban elkarlearen eskutik suziri jaurtiketa eta erraldio eta buruhandien itxera.
Koadrien kalejira barangarain eta Loatza Musika Eskolako dultzaina ikasleekin batera.
14:30. Haurren eta gazteoen koadrien bazkaria.
16:30. Kanpanolue antzerki-musikala, San Bartolome plazan.
18:30. Haurrentzako euskarroka, San Bartolome plazan.
22:30. Danborrada nagusia Oriá barangak alaiturik.
23:30. Jo ta Hanka taldearen emanaldia, San Bartolome plazan.

ABUZTUAK 23, OSTEGUNA
09:00. Diana, Giroarte dultzaina taldearen eskutik.
11:30. Penarado Ameketarra Izaskunen herri-antzerkia.
12:00. Tortilla Patata Lehiaketa. Epaleak herriko sukaldariak (baratzeak ogia eta edaria jarriko du).
17:00. Dantza emanaldia.
Ondoren, Aste karrera.
Jarrailan, Manita Euskal presak Euskal Herria irribarriekin.
20:30. Sagarro afaria.
23:00. Tormelada taldea.
24:00. Etsien entzerria.
ABUZTUAK 24, OSTIRALA (BARTOLO EGUNA)
09:00. Txistulariak.
11:00. Meza.
12:30. Herri kiroiak: Mugertza anaiak auzoan eta Almar Irigoien eta Miren Urkioa harriekin, Laja, Zioar eta Eguren.
22:30. Bertolariak goiko frontoan: Peñia, Iruza, Mañen eta Lizaso (beste iz zehazteko).
Ondoren, Lauetan Erdiko musika taldea. Asedenaldian, gau kiroiak.

ABUZTUAK 25, LARUNBATA (UMEEN EGUNA)
10:00. Meza buelta 6 urteko gorako gazteboentzat.
Jarrailan, Hamaitakoa San Martingo karpas, herriko plazan, bertik, 11:30ean bakolin probaketa.
13:30. Bazkaria (umeentzat) fronto zaharretan.
15:30. Ume jolasak, txotxongiakoak eta bokolotada.
17:00. Mus Txapelketa (bi parte-hartzaileak bakel herriko izan behar du).
Huntzean, Piano bat berbotan Ainhoa Ansa eta Jagoba Astiazaranekin.
23:00. Utsain anaiak. Asedenaldian, disfraga guetiko sari-banaketak.

ABUZTUAK 26, IGANDEA
09:00. Diana Giroarte dultzaina taldearen eskutik.
12:00. Koadrien kalejira Oriá eta Kaxkila barangekin eta Giroarte dultzaina taldearekin batera.
14:30. Koadrien zikro jatea, Uzturpe ikastolan.
18:30. Zpez Musikak taldearen emanaldia, San Bartolome plazan.
20:00. Osoan etetik San Bartolome plazara: pipera erretzeko prozesioa egingo dute eta ondoren pipera erreko dute bertan.
ABUZTUAK 25, LARUNBATA
09:00. Diana.
10:00-18:00. Haur eta

gazteboen 3x3 areto futbol txapelketa: Benjaminak, alebinak eta infantilak, Emeterio Arrese parkean.
10:30. Bat bateko xake partidak, Emeterio Arrese parkean.
11:00. Kuli-iren eskutik haurrentzat baserriko jolasak, San Bartolome plazan.
19:00. San Bartolome bezperako saltea eta kanpaiak lempaean.
19:30. Sokadantza, San Bartolome plazan.
23:30. Loatza taldea San Bartolome plazan.
ABUZTUAK 24, OSTIRALA
09:00. Diana Nagusia, San Bartolome elizan.
11:30. Haurren danborrada, Kaxkila barangak alaiturik.
12:00. Piperrak eta tomataak San Bartolome plazan, herriko baratzearekin, Zibelzu Piparrak etxak eta Piparra Kooperatibak eskari eta zerbitzatuta.
13:00. Emeterio Arrese XIX. Literatur Lehiaketaren eta San Bartolome bozeto lehiaketaren sari-banaketak, udalbelean.
16:30. Haurrentzako jokoa, San Bartolome plazan.
19:30. Bertolarien emanaldia: Andoni Egnia, Mañen Lujanbio, Millan Telleria eta Bionte Gozostik, Emeterio Arrese parkean.
22:30. Alur dantza taldearen emanaldia, Emeterio Arrese parkean.
00:00. Triki Ta Ke taldearen emanaldia, San Bartolome plazan.
ABUZTUAK 25, LARUNBATA
09:00. Diana.
10:00-18:00. Haur eta

11:30. Herriko hildakoen aldeko meza.
12:30. Jubilatuen hamaitakoa.
17:00. Merienda eta buruhandiak.
18:00. Kuli meztzarrien jolasen jai.
20:30. Euskarroka eta Play-backa.
ABUZTUAK 31, ASTEAZKENA
09:30. Goizeresia.
11:00. Meza.
12:00. Lizaso eta Mendizue bertolariak.
18:00. Sagarro probaketa.
23:00. Frontiseko pilotarien arteko partida.
00:00. Gastebean Izeta Pilaren Ilobak eta Skamachine.
IRAILAK 1, LARUNBATA
10:00. Gaztelu puzgarriak.

10:30. Gorriren animalak.
12:00. Koadrien arteko paella prestaketa.
14:00. Koadrien arteko bazkaria.
16:30. Haurrentzako jokoa.
18:00. Toka Txapelketa eta tringa festa plazan, eta espuma festa futbol zelain.
00:00. Abiba diskojaila.
IRAILAK 2, IGANDEA
09:30. Goizeresia.
11:00. Berrbilbo Herri Krosa.
18:00. Herri kiroiak. Aizkolariek, Ollasagasi-Belantzararen Amospide-Mujikaren aurka.
Hainzama taldearekin Irigoien-Urki Ireta aita-semeekin aurka.
20:30. III. Trikieta gazteen txapelketa.

Irailera arte gelditu gabe

Abuztu osoan zehar gure eskualdean hainbat herritan ospatzen dituzte jaiak, beraz, aspertzeko aukerarik ez da izango; Orendain, Gaztelu, Amezketak, Ibarra eta Berrobi dira horren adibide

Villabonako jaietan ere zuekin!
IRV ILDEITU EDARITEGIA
Erniobera, 4 943 69 05 91
Berria, 15 943 69 09 41
Kale Nagusia 2 943 247 469

BELAUNTZAKO HERRIKO TABERNAK
menu berezia eskaintzen du asteburuetan.
Erreserbak egiteko: 943 67 09 28

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

12 TATEK GALDU
MATEMATIKA 1
EUSKARA 1
IN LES

BITTOR MUÑAGORRI ▶ ELDUAINGO FUNTZIOETAKO ALKATEA

«Gure eginkizuna udaletxea funtzionamendu normal bat gabe ez uztea da»

«Gestora bat aurkeztea eta onartzea espero dut, eta hori EAE-ANVkoek aurkeztu beharko lukete»

ASIER IMAZ

Bittor Muñagorri (Elduain, 1970) gaur egun funtzioetan dagoen Elduaingo Udaleko Alkatea da. Orain dela lau urte EAJ alderdiarekin aurkeztu bazen, aurtien hauteskundeetan ez aurkeztea erabaki zuen azken legealdiko udaltaldeak.

Zein da gaur egun Elduaingo Udalaren egoera?

Momentu honetan gu aurkitzen gara funtzioetan. Orain dela gutxi EAE-ANVkoekin bilera bat izan genuen, Diputazioarekin ere bildu gara, egoera honi zein irtenbide eman diezaiogegun ikusteko. Udala eramango duen gestora bat osatzea da irtenbidea, funtzionamendu normal bat emateko udaletxeari. EAEko proposamen hori egin genien, gu hauteskundeetara aurkeztu ez ginelako.

Nork aurkeztu beharko luke gestora hori?

Gestora udaletxeak ezin du aurkeztu. Gestora Diputazioak egin behar du eta beraiek ez dira hona etorriko etxe etxe izenen bila. Guk EAEkoekin beraiekin kontaktuan jartzeko esan genien, gestora bat aurkezteko Foru Aldundian. Bien bitartean, udaletxea hutsik ez uzteko eta funtzionamendua emateko gaude hemen gu. Behin gestora jartzen den momentutik aurrera, alperrik gaude hemen, gure legealdia bukatu da.

Zuen aldetik ez al duzue Gipuzkoako Foru Aldundira joan behar urratsen bat ematera?

Gure aldetik aukera horretan arrisku bat ikusten dugu: guk uko egiten baldin badugu eta gestorarik ez baldin badago, herria lau urtetan Udalik gabe gera daiteke, Hernialden gertatu zen bezala. Guk momentu



A. IMAZ

honetan ez dugu hori nahi, baina ez guregatik. Gu ez gaude alderdiari begira edo beste ezerri begira, herriarengatik baizik, herria Udalik gabe egoitea tristea dela iruditzen zait; norbaitek baimenen bat behar baldin badu, baimen hori luzatzeko inor ez egotea tristea izango zen.

Udaletxean jarraitzeko asmorik ez zenuen legealdi amaieran?

Asmoa izan bagenu, hauteskundeetara aurkeztuko ginatke.

Nola hartu zenuen funtzioetan jarraitu behar zenuen alabitea?

Txisteetako broma gaizto bat bezala.

Herrian aurkako girorik somatzen al duzu?

Ez dut uste orain dela lau urte bezalako presioarik dagoenik. Baina bai uzteko egin beharretako pausoa zein den esanaz,

nahiz eta ez dakidan presioa egitea duten helburu edo ez. Gure eginkizuna garbia da: udaletxea ez uztea funtzionamendu normal bat gabe, eta ez da politikagatik.

Epe luzera begira nola ikusten duzu egoera?

Gestora bat aurkezte eta onartzea espero dut. Beraientzat eta herritarrentzat ere hobereena litzateke. Gu hauteskundeetara aurkeztu ez ginez, orain guk gestora bat aurkezte eta da zilegizkoa. Herritar guztiekin hitz egin da osatu daiteke baina, EAEk hauteskundeetan muturreko handia hartu du beraien aurkako lege horrekin eta beraiek osatu beharko lukete gestora.

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Zeuk idatzi. Atal honetan gure eskualdeko edozein albistaren berri eman dezakezu. Komenigarria da telefono zenbakiren bat edo helbideren bat ematea, kazetaria berri emalearekin harremanetan jar dadin. Anima zaitetz eta izan HITZAREN parte.

ANBRO BARANDIARAN ▶ EAE-ANV-KO KIDEA

«Alkatearen jarrera ikusita esperantza oso txikia daukagu»

«Alderdien Legearen aurka azaltzen dira baina gero probetxua ateratzen diote»

A. IMAZ

Anbro Barandiaran (Elduain, 1968) ANV-EAeren zerrendaburua da. Hauteskundeetan Espainiako Alderdien Legeak ilegalizaturik utzi zituen, ondorioz, PPren zerrenda bakarrik aurkeztu zen.

Zein da gaur egun Elduaingo egoera?

Elduaingo egoera oso pattala da. Orain dela lau urte EAJk alkatetza kendu zigun Alderdien Legearen gorabeheran. Lege horren aurka azaltzen dira baina gero, ahal duten guztian probetxua ateratzen diote. Orain berriz, EAE eta PP bakarrik aurkeztu ginen hauteskundeetara. PPk boto bakarra izan zuen eta guk 93 izan genituen. Ilegalizaturik geundenez, PPkoei eman zitzaizen alkatetza hartzeko aukera. Hauen zerrendakoek uko egin zuten. Ondorioz, orain lehengo alkateak, lehengo lapurrak, funtzioetan jarraitzen du. Ez zen hauteskundeetara aurkeztu, baina hala ere, hark segitu egiten du... Zer esango diozu ba?

Oraindik udaltaldea funtzioetan dago.

Gipuzkoako Foru Aldundiak ikusten baldin badu bera jarraitzeko prest dago. Guri berak, lehengoan izan genuen bileran, gestora guk osatu behar dugula eta Foru Aldundira gu joateko esan zigun, Diputazioarekin batera gestora bat osatzeko, orduan alde egingo duela berak udaletxetik. Baina bitartean berak Diputazioari ez badio presiorik egiten, alegia, berak jarraitzeko gogorik ez duela eta bera ez dela aurkeztu esaten ez badio, Foru Aldundiak ez du mugituko paperik, Diputazioa gustura dago harekin.

Nola ikusten duzu egoera?

Kontsulta bat egin dute junta zentrallean, nola geratzen diren eta funtzioetan jarraitzea ba al daukaten ikusteko. Oraindik ez diete erantzun baina guk uste dugunez, ez daukate alde egiteko inongo intentziarik.

Zuek ez al duzue Gipuzkoako Foru Aldundira joan behar?

Zer edo zer egin beharko dugu, baina esperantza oso



A. IMAZ

txikia daukagu. Berak jarrera horrekin jarraitzen duen bitartean, izan ere, egoera honetan Foru Aldundiak gu ilegalak garelako esango digu eta abar. Badakizu, lege hori ez zaie asko gustatzen baina gero...

Zein da egoera hau konpontzeko ikusten duzun lehen oztopoa?

Lehen oztopoa alkate honen jarraipena da. Hauteskundeetara ez da aurkeztu eta ez ezer. Lotsa pixka bat edukiko balu, duintasun pixka bat, ekainaren 15ean Diputazioa deitu behar zuten; ni funtzioetan nago baina hilabeteko plazoa daukazu zer edo zer egiteko esanaz. Edo ni ez naiz aurkeztu eta hemendik hilabetera dena utziko dut eta udaletxea hutsik geratuko dela esanaz. Gure ustetan gauzak horrela egin beharko liriteke, baina hori egiteko inentziarik ez dauka.

Udal funtzionamenduari begira, orain zerbait egiten ari al zarete EAE bezala?

Orain bileretan ari gara. Nahiz eta udaletxean ez egon, komisiok osatzen ari gara eta gure artean jarraitzen dugu hizketan. Herri txiki bat da eta oso gauza gutxi daude egiteko hemen. Orain festak datoz eta ez dakit udaletxeak antolatuko behar dituen edo ez. Gu lanerako prest gaude baina ez digute uzten. Zortzi urte egon ginenean, herria apur bat berpiztea lortu genuen. Ondoren, lau urte hauetan guk utzitako proiektuak egiten egon dira beraiek. ◀

iragarki laburrak ▶

LANA

Zaintzailea. Emakume euskalduna behar da etxeko lanak eta bi ume zaintzeko, goizetan ibarran. Interesatuak deitu: 943 67 15 09.

SALGAI

Leihoak eta atea. Oso egoera onean dauden poliuretanozko leihoak eta egurrezko atea. Deitu: 678 63 65 21.

GIZARTEA ▶

Kantauri Itsasoan, bakearen alde

Carlos Peñak datorren astean 150 kilometro egingo ditu Donostiatik Getxora, igerian, bakearen alde

NAIARA GARZIA

Abuztuaren 1a eta 5a artean, Carlos Peñak, Lokarriekin, Hondarribiko Udaletxearekin eta Euskal Kirol Portuak S.A. enpresarekin elkarlanean *Hondarribia-Getxo 150 kilometro igerian bakearen alde* izeneko proba egingo du.

Peña abuztuaren leian aterako da Hondarribiatik, eta 150 kilometroak 5 egunetan egingo ditu. Eguneko 30 kilometro egingo ditu gutxi gorabehera, 9 edo 10 ordutan, eguraldiak hala uzten badu, behintzat. Izan ere, itsasoan igeri egiteak proba zaildu dezake, olatu, ur-laster eta haizearengatik, eta itsasoaren zailasuna dela-eta eguneko kilometro kantitate zehatz bat jartzea zaila da. Halere, Carlos Peñak, zer eguraldi egingo duen jakiteko, itsas azterketan aditua den zentro baten laguntza izango du. Peña Hondarribiatik abiatuko da, eta Donostia, Zumaia, Lekeitio, Bakio eta Getxo zeharkatuko ditu, baina ez da bakarrik egongo 5 egun hauetan, bere ondoan piraguan 2 lagun izango baititu: Iñigo Agirrezabala eta Jesus Ramirez. Hauek jaten eta edaten emango diote. Honetaz gain, segurtasuna mantentzeko barku batek nabigatzaileei eskolta emango diete.

Paul Rios Lokarriko koordinatzaileak azaldu duenez, «duela hiru hilabete inguru Carlosekin bilera bat egin genuen. Berak proba hau egiteko nahia zuen, bakea eskatzeko helburuarekin. Guri ere asko gustatu zitzaigun ideia. Modu honetan bakea lortzeko esfortzu handi bat erakutsi dezakegu eta hau denontzat bakearen alde esfortzu bat egiteko adibide bat izan daiteke».

Etapa bakoitzaren amaieran deialdi bat egingo dute 5 egun hauetan zehar. «Ez da deialdi handi bat izango, gehienbat egun bakoitzaren amaieran Carlosekin egotea eta ongioterri txiki bat egitea izango du helburu». Halere, ordu bat zehaztea ez da erraza, alde zuzenaren zehar ordu beharko dituen jakitea ezinezkoa baita. «Carlos egunero nahiko goiz hasiko da, 7:30a aldera, eta leku guztietara arratsaldean ailegatuko da, eta justu une horretan jendea biltzea ez da erraza izango, baina gure jendea behintzat mugituko dugu».

Erronka ugari

1989. urteaz geroztik Carlos Peñak hainbat itsaso, ozeano, erreka, laku, urtegi eta badia zeharkatu ditu. Gehienetan proba hauek lagun eta bolondresen laguntzarekin egin ditu, eta zeharretan nazioarteko erakundeak ere lagun izan ditu, Living Lakes erakundea, esaterako.

Peñak bizkarrez igeri egiten du, neoprenozko jantzi bat erabiltzen du, baita hegats txiki batzuk ere. Urte guzti hauetan Ness lakua, Ebro ibaia, Magallanes eta Gibraltarr itsasarteak, Titikaka eta Marakaibo lakuak eta beste hainbat zeharkatu ditu.

BAKEAREN ALDE ▶

ETAPAK

- Abuztuak 1.** Hondarribia-Donostia.
- Abuztuak 2.** Donostia-Zumaia.
- Abuztuak 3.** Zumaia-Lekeitio.
- Abuztuak 4.** Lekeitio-Bakio.
- Abuztuak 5.** Bakio-Getxo.



Carlos Peña Ribadesellán (Asturias), Sella ibaia jaitsi zuenean, Veronica Blanco kirol zinegotziarekin. i.a.

CARLOS PEÑA ▶ IGERILARIA

«Kantauri Itsasoak indar handia dauka eta proba zaila izango da»

Carlos Peñak (Tolosa, 1965) bakearen aldeko proba bat egingo du Kantauri Itsasoan datorren astean.

Egunean 30 kilometro egin behar dituzu, ez?

Gutxi gorabehera, itsasoan igeri egitea nahiko konplikatua baita eta alde zuzeneko eguneko kilometro kopuru zehatz bat esatea zaila da.

Kirolari bezala, zailtasun handiko proba izango al da?

Bai. Itsasoan igeri egitea niri ez zait batere gustatzen, nik atzeraka igeri egiten dut, eta olatuak nire aurka joaten dira. Niri ibaian igeri egitea gustatzen zait gehienbat. Udara oso-



I. TERRADILLOS

an itsasoan entrenatu dugu eta gure itsasoa oso konplikatua dela argi ikusi dugu, bai nik, bai piraguan nire ondoan ibiltzen direnek ere. Kantauri Itsasoak indar handia dauka eta zaila izango da.

Proba honen bitartez zer eskatu nahi duzu?

Nik esfortzu handi bat egin behar dut. Bakean ez bizitzearekin nekatuta gaude, eta proba honekin bakea lortzeko lan egitea dagokionari, politikoei gehienbat, nik lan egin behar dudana bezala lan egin dezate. Eskatu nahi diet herritar bezala. Inolako eduki politikorik gabeko mezua da. ◀

urteurrena ▶

Lehenengo urteurrena

Dimas Irastorza Garmendia

2006ko uztailaren 28an hil zen, 55 urte zituela.
—Golan bego—

Emazteak eta gainerako ahaideek.
Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizute eta arren etor zaitzela BIHAR, IGANDEA, eguerdiko HAMAIKETAN, ANDRE MARI JASOKUNDEAREN parroki elizan egingo den urteurrenoko mezara. Aldez aurretik, mila esker.

ORDIZIA, 2007ko uztailaren 28a

urteurrena ▶

Belen Aguirre Alustiza

1. urteurrena

Joan zinen. Hemen gaude ez zaude baina bazaude hiru ginen ta bi gara bi gara ta hiru gare semea eta senarra guraso eta senide ez gaude batera baina bihotzak loturik gaude gogoan izango dugu bihotz handi hori ere

Josuk

oharra ▶ Bihar, 12:00etan, Bariko San Nikolas parrokia elizan egingo da urteurren meza

ORIO, 2007ko uztailaren 28a

HILBERRIAK
URTEURRENAK
ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko
HITZAN jarri eta Gipuzkoako
beste 4 Hitzetan DOAN
agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN
120.000 IRAKURLE

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Tel.: 943 65 56 95

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Aitzo. Jaien egitarauaren baitan, 11:00etan, Buruhandi, txistulari eta Iraunkorrek txaranga. Ondoren dantzariak izango dira Alurrekin eta Artearekin. 12:00etan txakolina izango da edateko; jarraian, toka txapelketa. 15:30ean Mus txapelketa azkarra herritarrentzat eta plater hausketa. 22:30ean bertso emanaldia; 23:30ean J&K taldearen emanaldia.

Ibarra. San Inazio auzoko jaien baitan, egitaraua: 10:00etan, San Inazio auzoaren jaien hasiera ohiko txupinazoarekin; ondoren, kadeteen futbol partidak; 10:30ean, haur jaialdia; globo gerrarako bainugantzi eta txankletekin joatea komeni da; toka ere izango da; 11:30ean, tortilla lehiaketa eta pintxo dastaketa; 17:30ean, Die Boss e Izegem belgikar taldearekin dantzak;



Aizkardiren irteera Pirinioetara, irailean

VILLABONA ▶ Aizkardi mendi elkarteak irteera antolatu du ikasturtearen hasierarekin batera. Hala, irailaren 15 eta 16an Pirinioetara joango dira: Larunbatean 06:00etan irtengo dira Olaederra kiroldegitik Torlara heldu arte. Saloronseko bidea igoko dute eta Loreen

gerrikoa izeneko igarobidea pasata, Gorizeko aterpera helduko dira. Bertan gaua igaroko dute. Igandean, berriz, gosalduta ostean Perdido mendia igoko dute (3.355m) Ordesako bailarara jeisteko. Eta hortik Villabonara bueltatuko dira. Irteeran parte hartzeko izena eman daiteke 649 717182 zenbakitan 20:00-etatik 22:00etara abuztuaren 27tik irailaren 7ra. 60 euroko kostua izango du irteerak. HITZA

18:30ean, sokatira Ibarra eta Izaskuno taldeen artean. 19:30ean, txokolatada; 23:00etan, dantzaldia DJ Gabirekin.

Tolosa. Harizpe jubilatuen elkarteak oporraldia antolatu du Benidormen irailaren 29tik urriaren 13ra. Bazkideek 455 euro ordaindu beharko dituzte, eta bazkide ez direnek, berriz, 461 euro.

Tolosaldea. Tolosa, Berastegi, Elduain eta Berrobiko erromesaldia Arantzazura hilaren 31n. Autobuserako eta bazkarirako txartelak, San Frantzisko komentuan.

Villabona. Euskal Jaia Villabonan: 09:00etan sokamuturra; 10etan xakea; 10:30ean erraldoiak; 11:00etan pala txapelketako finalak; 12:00etan pilota eskuz; 11:30ean pailazoak; 18etan sagardo eta pintxo dastaketa trikitilariekin; 19:30ean bertsolariak; 20:00etan erromeria; 21etan zikiro jatea.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leiza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.
Tolosa. Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 670648.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Ana (Anoeta). Gaur 3 urte. Zorionak eta muxu asko etxekoekin partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa
- ▶ HITZAren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea

hitza agurren tarte



ZORIONAK
 Markesa, iritsi zaigu hainbeste itxarondako eguna. Hau den txoltoa hartu dekena. Ondo pasa. Muxu bat. Unai



ZORIONAK
Mikel eta Rafa.
 Mila esker, gurasoen partetik.



ZORIONAK
Osaba Inaki eta Izaba Ainhoa.
 Ondo pasa zuen ezkontza egunean.

EUSKAL JAIA
Billabona

Uztailak **28**
 Larunbata

Billabonako Plazan

"SALTO ETA JAUI, EUSKARAZ BIZI!"

18:00etan Sagardo dastaketa pintxoekin laguntzarekin Laja, Eguren eta Ziular trikitilariek alaiturik
19:30etan BERTSOLARIAK: Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso
20:00etan ERROMERIA: Laja, Eguren eta Ziular trikitilariek
21:00etan Afari herrikoia plazan: **Zikiro Jana**
00:00etan ERROMERIA: Patxi eta Konpania

Garaiko euskal jantziekin parte hartzera animatzen zaituztegu
Zikiro janerako txartelak salgai: 20€